



pdfelement

14 urteko gaizkileen patua

Hondarribiko Jokin Zeberioak jasan zuen jazarpena bezalako kasu entzutetsuek Espainiako Adingabekoentzako Legearen gogortzean eragin du, ezbairik gabe. Aste honetan bukatu da lege horren gaineko hirugarren erreformari zuzenketak aurkezteko epea eta Senatuan bozkatuko dute orain. Erreformak aurrera eginez gero, gazteek zigor gogorragoak eta luzeagoak jasango dituzte adinez beherakoentzako zentroetan. Halako zentroek jaso izan dituzten kritikak ikusita, Euskal Herriko segurtasun neurri zorrotzenak dituenen izan gara, bertako egunerokoa ezagutzeko asmoz. Ekintzarik txikiena ere arautua dagoela ikusi dugu eta sortzen diren gatazken, gazteek dituzten sentimenduen eta beraien eta hezitzaileen artean jaiotzen den harremanaren berri izan dugu.

MIKEL GARCIA
Argazkiak: Dani Blanco

AUTOAREKIN SARTU eta burdinazko atea pixkanaka gure atzean itxi denean, argazkilaria eta biok estutasun pixka bat sentitu dugu. Hesiz inguratuta gaude, irteerarik gabe, kamera eta zaintzaile artean. Paisaia atsegina da, adinez beherako mutilentzako Zumarragako (Gipuzkoa) Ibaiondo zentroa mendian galduta baitago, baina hertsu sentsazioa arnasten da. Ibaiondokoa, Ortuellan (Bizkaia), Aramaion (Araba) edo Gasteizen dauden zentroen aldean, zigor luzeagoak eta erregimen itxiagoak dituzten gazteen-tzat diseinaturik dago eta segurtasun neurri zorrotzagoak ditu. Bisitan zentroko hezitzaile batek lagundu digu, gainean *walky talky* darama eta modulu batetik bestera igarotzeko, edozein gelatan sartzeko nahiz patiora irten edo berriz sartzeko zaintzaileei deitu behar izan die, beraiek baitituzte giltzak. Ateak beti itxita daude eta pasatzeko ireki ostean berriz ere itxi egiten dituzte gure atzean. Gazte gutxi ikusi ditugu, zentroko berdeguneetatik igarotzen den ibaian monitorearekin zubia eraikitzen ari den talde bat baino ez. Adingabeak gehienez zazpiko taldeetan banatuta daude eta gainontzeko taldeekin ezin dute harremanik izan, modulutan bananduta baitaude eta tailerrean, ikasgelan edo gainontzeko ekintzetan aritzeko ordutegi desberdinak dituzte. Zentroa handia da eta barnetik datorren oihu isolaturen bat salbu, isiltasuna da nagusi. Hezitzailearen arabera, egunerokoa ez

Geroz eta ohikoagoa da
erdi mailako edo erdi altuko
familia normalizatueta
gazteak zentroetan sartzea.
Gurasoek mugarik jarri ez
dizkieten gazteak
izan ohi dira

omen da oso gatazkatsua. Hori bai, idi-begi formako atetako leihoak plastikozkoak dira orain, kristalezkoak ukabillkadaz edo burukadak emanez apurtzen baitzituzten mutilek. Matxinada antzeko azken gertaera 2004ko Gabonetan jazo zen: gazteek giltzak hartu zituzten eta alde batek bestera ibili ziren kontrolik gabe, teilatuetara igota. Zaintzaileen erantzuna gogorregia izan zela uste du hezitzaileak. Ateak zabaltu dizkigun zaintzaileak berriz, mutiletako batek zurgintza tailerrean mailu eta paletarekin iskanbila sortu zuela du gogoan. Segurtasunekoak borra eta ezkutuarekin azaldu zirenean, ordea, istilua berehala amaitu zen.

Noiz eta nola jan

Halakoak saihesteko, arau oso zorrotzak dituzte. Iristen diren gazteei lehenengo egunetan jakinarazten zaizkie hutsak edo faltak (arinak, larriak eta oso larriak) zeintzuk diren eta horiei dagozkien zigorrak –“erantzun zuzentzaileak” direlakoak–. Guk ikusi dugun taldeak hamabost egun emango ditu ping-pong, mahai-futbol, musika eta telebistarik gabe, haietako batek tabakoa ezkutan zuelako eta egunean erre dezaketen zigarro kopurua mugatua daukate. Gazteak sartzen diren lehenengo minututik azkeneraino dena arautua dago: zer arropa eraman behar duten, nola mugitu behar diren, noiz jaiki eta oheratu, nola zuzendu hezitzaileei, mahaian nola jokatu –korroka egi-



Ibaiondo zentroa Lehen Mailakoa da, erregimen itxiagoetarako pentsatua. Horregatik, segurtasun neurri zorrotzak ditu eta hornituagoa dago: behean, patioa, prestakuntza tailer bat eta egongela. Azken irudikoa Patxi Lasa hezitzaileen koordinatzailea da.

teak edo puzkerra botatzeak zigorra dakar—, noiz eta nola jan, dei kopurua... eta sakelako telefonoak, boligrafoak edo linternak bezalako makina bat objektu debekatuta daude. Zigorra, asteko paga kentzea, deiak murriztea edo hurrengo aisialdian logelan geratzea izan daiteke, esaterako. Hutsa oso larria denean —era-soak, matxinada, drogak sartzea eta abar— gazteari taldetik bost eta zazpi egun bitartean isolatzen zaio eta ez du aisialdiko ekintzetan parte hartzen. Txabi Etxebarria EAEko Zigor Beteazpen zuzendariaren esanetan, askori inork ez die inoiz esan hau edo bestea ezin dutela egin, ez dutelako familiarik edo familian ez delako halakorik egon eta hasieran gaizki hartu dezakete, “baina neurri batean mugak daudela barneratzen joaten dira, besteen eskubi-deak hasten direnean gureak bukatzen direla eta nahi dutelako ezin dutela lapurtu ulertzen dute”.

Gazte horien artean, baliabiderik eta nagusi baten laguntzarik ez dutenak eta giro marjinalean hazi direnak daude. Oso ezohikoak dira delitu larriak egin dituzten adingabeak, nahiz eta komu-



nikabideetan oihartzun handiena horiek bereganatu. Aldiz, geroz eta ohikoagoa da erdi mailako edo erdi altuko familia normalizatuetao gazteak sartzea. Ertzaintzaren atxilotze datuen arabera, gazte delinkuentziak ez du gora egin, baina bai salaketengatik epaitegiara iritsi diren gazteen kopuruak eta horietako gehienak etxeko indarkeriari lotutako salaketak dira; gurasoenganako biolentziari, alegia. Gurasoek mugarik jarri ez dizkieten gazteak izan ohi dira. Txabi Etxebarria kontatu digunez, fenomeno hau ziurrenik aspaldikoa da, baina iaztik hasi zen nabarmentzen. Aurten, iazko kasuekin alderatuz, etxeko indarkeriarekin zerikusia duten kasuak hirukoiztu egin dira. Gehienak ez dira kasu larriak, agresioekin edo mehatxuekin lotutako une konkretuak dira eta denek ez dute zentroetan bukatzen. Gainera, zentroetan sartzea ez beste zigor arinagoak —gizarte lanak, droga mendekotasunaren aurkako terapiak, ikastaroak...— jasotzen dituzten gazteen %85 behin bakarrik joaten dira epaitegira. Zentroetara lapurretekin, borrokekin

Iñigo Lamarca, arartekoa: "Soilik zentroetako esku-hartzeei arreta ematea akatsa da"

Zentroko tailerretan prestatzen dituzten gazte atzeritarrek sistemaren horma aurkitzen dute kanpoan: ez dizkiete paperak ematen eta egindako lan guztia ezerezean geratzen da

edota etxeko indarkeriarekin zerikusia duten delituak egin dituzten gazteak iristen dira batik bat, askok zentro horiek bortxatzailez eta hiltzailez beteta daudela uste badezake ere.

Epaileak adinez beherako delitugilea zentroan sartzea erabakitzen duenean, hiru motatako erregimena jarri diezaioke: itxia, erdi irekia eta irekia (etxebizitzetan). Ohikoena zigorra bete ahala erregimen itxiagoetatik irekiagoetara pasatzea da, ekintza guztiak barruan egitetik kanpoan egiten hastea eta segurtasun handiko zentroetatik etxebizitzetara igarotzea. Segurtasun neurri zorrotzenak Ibaiondon daude eta bertan 8-12 hilabete igaro ohi dituzte gazteek. Hasieran, gazteari arautegia eta funtzionamendua azaltzen zaizkio; dituen gabezi, arazo eta aukerak aztertzen dira eta helburu indibidualak ezartzen zaizkio –prestakuntza, familiarekin duen harremana hobetzea...–, barneko ekintzak komunak diren arren. Normalean, lehenengo unetan guztiarekiko jarrera ezkorra dute, hirugarren astean lurreratu eta krisia sortzen den arte, konturatzen direlako aurrera egin eta atera nahi badute, funtzionamendua onartzea dela onena. Adingabe bakoitzak tutorea du eta tutore horrek, psikologoaren eta hezitzaileen laguntzarekin, programazioa zehazten dio. Epaileak ere epaitutako gazteen segimendua egiten du eta betebeharrak, ekintzak, ordutegiak eta arauak errespetatuz gero, mutilek puntuak eta "pribilegioak" lortzen dituzte: logelan argazkiak ipini ahal izatea, musika, erlojua, objektu pertsonalak... Bestalde, informatika eskolak, ikasketak, prestakuntza tailerrak, kirol

ARARTEKOAREN FUNTZIOA herritarren eskubideen alde egitea izanik, delituren bat egin duten adin txikikoei lege sistemak ematen dien tratamenduari buruz Iñigo Lamarca duen iritzia ere ezagutu nahi izan dugu. Bere esanetan, gazteen bortizkeria areagotzen ari den pertzepzioa du gizarteak, baina pertzepzio hori ez da beti benetako datuetan oinarritzen: "Askotan, uste hori jokaera batzuek (gazteek izandakoak direnetan) erakartzen duten arretaren ondorioa da, edo neurri batean ezezagunak diren edo delinkuentzia forma 'berriak' sortzearen ondorioa".

Lamarcaren ustez, komenigarria izango litzateke gogoraraztea edozein proposamenaren oinarrian funtsezko zenbait printzipio izan behar direla. "Ez da ahaztu behar: nerabe eta gazteak ditugu hizpide, hau da, prestatzeko prozesuan murgildurik dauden pertsonak, beraz helburu hezitzaileak gazte horien inguruan egiten den guztian lehentasuna izan behar du. Gauzatu dituzten delituak gauzatu ere, zuzenbideko subjektu izaten jarraitzen dute. Askotan, bestelako neurriak hartu aurretik hautabide ezberdinak eta bitartekotza

aukerak egoten dira". Sisteman elementu kezagarriak ikusten dituela ere esan digu: hala nola, araudian etengabe gertatzen diren aldaketak; delitua- ren eta hartutako neurrien artean askotan igarotzen den gehiegizko denbora tartea; epaitegi ezberdinetako praktika judizialean antzematen diren alde nabarmenak; hartutako neurrietan beste sistema batzuen (hezkuntza, lana, gizarte zerbitzuak...) parte-hartze eskasa, batez ere prebentzio eta gizarteratze lanari dagokionez; edota ezau- garri zehatzak dituzten gazteen propor- zio altua –zentroetan sartzen dituzten hiru gaztetatik bi delitua egin aurretik aplikatzen den babes sistematik dator, arazo mental eta/edo droga mendeko- tasuna duten gazteak dira...–

Jarraitu beharreko bidea garbi du Arartekoak: "Zentroetako esku-hartzeei bakarrik arreta ematea akatsa da, nahiz eta argi egon prebentzioan, komunita- tearen garapenean, edo gizarteratzeko eta lan mundura sartzeko lan egitea zailagoa dela, eta agente ezberdinen lankidetzak eta instituzio anitzen eran- tzun koordinatua eskatzen duela. Desa- fio itzela gure gizartearentzat".

ekintzak eta bestelako jardueri esker, eguna aktibitatez beteta izan ohi dute.

Gatazkak

Eguneroko horretan, gazte batek ahotsa altxatzea, haserretzea, gauzei ostikoren bat ematea edo borrokan aritzea ez da ezohikoa. Patxi Lasa Ibaiondoko hezitzaileen koordinatzailearen hitzetan, zentroa ireki berriko garaiak gatazka- tsuak izan ziren, baina egoera normalizatu egin da eta orain lasaia da. Esaterako, gaztea berandu esnatu delako zigortu eta protestaka hasiz gero, aisialdian logelan geratuko dela esaten

Argitalpen honen edizioan lankide:

 **kutxa**

Legea gogortu egin da

Legalki, Euskal Herrian gazte bat bere ekintzen edo delituen burujabe da 13 urteetatik (Frantzia) edo 14 urteetatik (Espainia) aurrera. Espainia 2000. urteko Adingabekoen Legea gogortzen joan da, neurri batean iritzi publikoak eraginda. Hala, hil honetan Senatura iritsi den eta laster martxan jarriko den lege erreforma ez dute begi onez ikusi Eusko Jaurlaritzan. Erreformak zigorrak gogortzea ekarriko du: besteak beste, zigor larriena 10 urtekoa izango da –orain 8 urtekoa da–; zentroetako gazteak 18 urterekin kartzelara eraman ahal izango dituzte eta 21 urterekin automatikoki kartzelaratu dituzte –egun, 23 urterekin pasatzen dituzte zentroetik kartzelara–. Gogortze hori ez dela beharrezkoa, baliabide aldetik buruhausteak ekarriko dituela eta aldaketak zigorrak arloko burutu ordez heziketaren arloan egin beharko lirakeela uste du Txabi Etxebarría Jaurlaritzako Zigor Betearazpen zuzendariak. “Gaur egun, esaterako, ez daukagu inongo kasurik kartzelara bidaltzeko modukorik; zigorrak nahikoa gogo-

rrak dira dagoeneko, auto bat lapurtzeagatik adinez nagusi den inor ez delako kartzelara joaten, baina adin txikikoa zentrori bai”.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, Frantzia nahiko sistema gogorra dute. Ez dago adingabekoentzako behar adina zentrorik –15 zentro eta 150 lagunentzako lekua guztira– eta kartzelak 18 urtetik beherakoentzako modulu berezietan sartzen dituzte. Kartzela horietan ez dute hezitailerik, funtzionario kartzelariak baizik, baina tarteko zentroak ireki nahi dituzte, funtzionarioak eta hezitzaileak uztartuko dituztenak. Europar berri, egoera herrialdearen arabera da. Mutur batean Eskandinavia dugu: sistema hezitzailearekin urte asko daramatzate eta eredu garria da. Bestean, Britainia Handiko sistema aipatu behar da: komunikabideetan agertutako delitu larrien oihartzunaren ondorioz, sistema asko gogortu da. Delituen gaineko burujabetza 10 urtetik aurrerakoa da eta kartzelara eta baita biziarteko kartzelara ere kondena ditzakete gazteak.

zaio, protestan jarraitzen badu, beste zigor bat ezartzen zaio eta azkenean, bere onerako, isildu egingo da. “Normalean, talde bakoitzean beren burua kontrolatzeko gaitasun gutxiago duten mutil bat edo bi egon ohi dira –banatu egiten ditugu denak talde berean ez egokitzeko–, baina zigorrak jarritik dinamika hori moztu egiten diogu eta besteek ez diote jarraitzen”. Lasaren arabera, astero baten bat logelan zigortua egon daiteke eta hiruzpalauri neurri zuzentzaileak jartzen zaizkio, ez gehiago. Hezitzaileek ez dituzte mutil gatazkatsuak fisikoki geldiarazten, hori zaintzaileen lana da, atek ireki eta itxteaz gain, histeria-ueak eta erasoak kontrolatzeko baitaude. Hezitzaileek bilagailuak dituzte, zaintzaileen laguntza behar izanez gero ohartarazteko. Halakoetan, zaintzaileek eskuak, ezkutak, esku-burdinak eta gomazko borrak erabili ditzakete. Aurten, gazte bat asko asaldatu zela gogoratu du Lasak, denak eraso nahi izan zituen eta gauzei ostikoka hasi zen. “Antsietate krisiak izaten dituzte, hemen barruan egotea gogorra delako eta batzuetan liskarraren ostean konturatzen gara gazte horrek botikak hartzea komeni dela”.

Zigorrak eta segurtasun neurrien ginetik, ordea, Lasak gaztearen eta hezitzailearen artean sortzen den harremanean jartzen du bere lanaren oinarria. Beste zentroetan gogoragoak badira ere, Ibaiondon harreman pertsonalari garrantzia ematen diotela dio, “horrek dituen arriskuekin”. “Maitasuna, heziketa, konfiantza... indartzen ditugu, beti ere faltekin beren neurri zuzentzailea dutela kontuan hartuz. Oreka bilatzea da gakoa”. Modu hori da gaztea benetan ezagutzeko biderik egokiena eta aldi berean, gomendioak ematerakoan beretzat hobe delako esaten zaizkiola konturatzen da. Gaztea pixkanaka jarrera irekiagoa hartzen joaten da eta hezitzailearekin arazoez, bizitzaz, harremanez hitz egitera

Neurri prebentiboen hutsuneak

Delitua egin aurretik, aldundien Ongizate Saileko babes neurriei dagokie baliabiderik gabe edo gabeziekin dauden adinez beherakoak hartzea, babes pisuetan edo Martutenekoa bezalako zentroetan. Baina aldundiek ezin diote eskari guztiari aurre egin, masifikazioa da nagusi eta beraz, giza neurri prebentibok ez dute beren funtzioa betetzen. Azkenean, funtzio hori zentroek beraiek betetzen dutela dio Patxi Lasa Ibaiondoko hezitzaileen koordinatzaileak.

ausartzen da. “Denetik kontaktzen digute: babesik gabeko harreman sexualak izan dituela eta HIESaren proba egin nahi duela; ez duela nahi neskak edo familiak bisitatzea horrek gero angustia sortzen diolako... Guk hezitzaile papera egiten dugu, larritasun eta estres hori bideratzen jakin dezan eta gauzak objektiboki ikus ditzan. Azken finean, 15-17 urterekin oso esperientzia gogorak bizi dituzte eta normala da gaizki egotea. Anaia kartzelan sartu dutela, egun batzuetara epaiketa dutela, neska haurdun geratu dela... eta gu gara hitz egiteko hur-bilen dituztenak”.

Eta gero zer?

Harreman pertsonal horri esker, baloreak transmititzen dizkietela dio Lasak, askotan fruituak neurtzea ezinezkoa bada ere. “Batzuek aurrera egingo dute eta beste batzuek ez, mila faktorek eragiten dutelako, baina heziketa lana barneratzen dute. Pena da, baina batzuetan garbi ikusten duzu gazte batek kartzelan bukatuko duela, oso zaila izango dela bizimodu berera itzultzen bada giro horretatik irtetea”. Beste hainbatetan, gaztea ez da heldu, ez du ezerenganako errespeturik eta dinamika bera jarraituko du, errazagoa delako lapurtzea, ikastaro batera joatea baino. “Familia oneko” gurasoei ere gertatu ohi da ez daudela prest familiarrekoe-ek landu behar duten arazoa dela onartzeko eta ikastetxeari edo inguruari egotzen diote errua. Atzeritarren kasuan, paperak lortzea izan ohi da bizimoduz aldatzeko giltza eta kontraesana bada ere, gizarteratzeko zentroan prestatzen dituzten gazteek sistemaren eta legearen horma aurkitzen dute kanpoan: ez dizkiete paperak ematen eta beraz, egindako lan guztia ezerezean geratzen da. Hala ere, zentroetik ateratzean askatasun zaindua ezar-

Argia etxean

Abantaila ugarizateaz gain, Harpidetutuen Gureko kide ere izango zara.

Urtetarako harpidetza
 2016ko martxoak 6
 127e Hego Euskal Herrian
 1556 Iparr Euskal Herrian

Izen abizenak: _____

Helbidea: _____ Posta kodea: _____ Herria: _____

Herriakoa: _____ Idazleguna: _____

N.A./I.U.K.: _____ Tel./faxa: _____ e-posta: _____

Ordainketa mota: ☐ Bankuz ☐ Tailoriz ☐ Transferentiaz

KOMUNIKAZIO-BLAGAIA S.A. Leren kontura (ARGIA): 3036 0030 14 0000048647

Bankuz ordaintzekoak beretzeko soilik

Banku ordain gureko kuitak: _____

Titulaketa: _____ N.A./I.U.K.: _____

Titularen helbidea: _____ Titularen telefonoa: _____

Erabilatzaia: _____ Sukurtzaia: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Datua: _____ Sinadura: _____

auteratu gure argi etxetik atera

☐ "Gartxo" komikia ☐ "Lauburu" mahal-jolasa ☐ "Txoriak txori" lamina ☐ %25eko beherapena ikasle bazara*

ARGIA 400 400 400 / 400 400 400 / 400 400 400 / 400 400 400 / 400 400 400

Adinez beherakoentzako zentroak

ADIN TXIKIKOEN DELITU ETA ZIGORREN DATUAK


Hego Euskal Herrian gazte delinkuentziari aplikatzen zaion justiziaren funtzionamendua datutan bildu dugu. Zein delitu dira ohikoenak? Zein zigor jasotzen dute? Gazteentzako zein motatako zentroak daude? Hona erantzunak:

ADINEZ BEHERAKOENTZAKO ZENTROAK*

EAE	
Zentro itxia:	• Zumarraga, publikoa den bakarra (Gipuzkoa, 34 leku)
Zentro erdi-irekiak:	• Ortuella (Bizkaia, 7 leku) • Aramaio (Araba, 12 leku) • Andoia (Gasteiz, 7 leku), neskentzako bakarra
Erregimen irekiagoko etxebizitzak:	• Etxebizitza bana EAEko hiriburuetan (4 leku bakoitzean)
Nafarroa	
Zentro itxia:	• Ilundain (10 leku)
Zentro erdi-irekia:	• Iruñea (Behaketa eta Harrera Zentroa), (5 leku)
Zentro terapeutikoa:	• Zandueta (4 leku)

*Eguneko zentroak eta tailer eskolak kontuan hartu gabe.

INTERNAMENDU KOPURUAREN BILAKAERA



EAE-KO ZENTROETAKO GAZTEEN DELITU KOPURUA

Delitu motak	Kopurua
Lapurreta intimidazioarekin	17
Indarkeria familiarra	8
Lapurreta indarkeriarekin	7
Lesioak	3
Kondena urratzea	2
Lapurreta	1
Osasun publikoaren aurkakoa	1
Testigantza faltsua	1
Atxiloketa ilegala	1
Justizia oztopatzea	1

ZIGOR MOTAK (2005)

Zigor motak	Nafarroa	EAE
Internamendu itxi, erdi-ireki eta badaezpadaakoa	24	
Internamendua		137
Askatasun zaindua	201	64
Anbulatorio tratamendua	33	2
Asteburua etxebizitzan	66	17
Gizarte lanak	506	26
Eguneroko zentroak	12	1
Lan giza-hezitzaileak	95	5
Asteburua zentroan		20
Terapeutikoa (drogak)		1

Iturriak: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, Nafarroako Gobernuako Familiaren Zuzendaritza Nagusia.

50ak beteko dituzte eta 100 leku badaude, 100ak. Epaileak gizartea zaintzen du, ez du nahi gizartean alarma pizterik eta jendearen bidegabeko beldur horrekin amaitzeko 'arazoak' kaletik kentzen ditu, zentroetan sartuz".

Mohamed

Mohamed 'arazo' horietako bat izan zen. Bere benetako izena argitaratzerik nahi ez duen 23 urteko mutil isila da Mohamed. Marokotik familiarik gabe iritsi zen eta Bilbon sei-zazpi urte daramatza dagoeneko. 17 urterekin adingabekoentzako zentro batean sartu zuten 18 hilabetez, indarkeria erabilita lapurreta egiteagatik. "Ez nekien nora eraman behar ninduten, norekin egongo nintzen, zer

egin behar nuen eta hasieran ez nintzen inorekin fidatzen. Ihes egin nahi nuen, 'jende honek askatasuna kenduko dit', pentsatzen nuen eta lau hilabete inguru eman nituen jarrera horrekin. Ez nuen jendearekin kasik hitz egiten, nire munduan sartuta nengoen eta ez nion inori bertara sartzen uzten. Beraz, lau hilabete luze izan nituen pentsatzeko, zer egin nahi nuen, nolako auzo nintzen, zer aldatuko nukeen...". Gainera, lehenengo sei hilabeteetan zentroetik ateratzea guztiz galarazita izan zuen. Hizkuntza ere arazoa zen eta gauza asko botatzen zituen faltan, konpainia batez ere. Dena den, hasieratik argi izan zuen leku hartako arauak betetz gero ez zuela arazorik izango eta bide hori aukeratu

"Epaileak ez du nahi gizartean alarma pizterik eta jendearen beldur horrekin amaitzeko 'arazoak' kaletik kentzen ditu, zentroetan sartuz"

Patxi Lasa, hezitzailea

egin behar nuen eta hasieran ez nintzen inorekin fidatzen. Ihes egin nahi nuen, 'jende honek askatasuna kenduko dit', pentsatzen nuen eta lau hilabete inguru eman nituen jarrera horrekin. Ez nuen jendearekin kasik hitz egiten, nire munduan sartuta nengoen eta ez nion inori bertara sartzen uzten. Beraz, lau hilabete luze izan nituen pentsatzeko, zer egin nahi nuen, nolako auzo nintzen, zer aldatuko nukeen...". Gainera, lehenengo sei hilabeteetan zentroetik ateratzea guztiz galarazita izan zuen. Hizkuntza ere arazoa zen eta gauza asko botatzen zituen faltan, konpainia batez ere. Dena den, hasieratik argi izan zuen leku hartako arauak betetz gero ez zuela arazorik izango eta bide hori aukeratu

Adinez beherakoentzako zentroak ➔

zuen: “Gainontzekoak errespetatzen nituen, ez nuen marra hori gurutzatzen eta gainontzekoek ni errespetatzen ninduten”.

Halaber, eguna ekintzez nahiko betea izan ohi zuen, zurgintza tailerrean hartu zuen parte eta ikasketak egin zituen. “Zerbaitetan aritzea ondo dago, bestela pentsatzen ematen duzu eguna eta benetako kartzela bilakatu daiteke, beti hara eraman zaituen hutsegitea buruan bueltaka dabilkizula”. Mohamedek dio egun onak eta txarrak zituela, baina mutil baikorra da eta begirada etorkizuneko asmoetan jarri zuen. Azken finean, zentroak munduarekiko ikuspegia zeharo aldatu zion: “Tutoretza orduetan hezitzailearekin bizitzaz hitz egiten nuen, lan egitearen balioaz, dena ez direla lagunak eta parranda, eta niretzako kontzeptu berriak ziren, kalean bultzatzen diren baloreak bestelakoak delako: gaiztoa izatea, denetik izatea, lanik ez egitea”. Begiak ireki zizkioten, curriculumak bidaltzen hasi zen eta paperekin lagundu zioten, “paperik gabe ezin duzulako lanik egin eta lanik gabe ezin duzu paperik lortu, desesperagarria da”.

18 hilabeteak bete ostean, Bilbo utzi eta Elantxobera joan zen, itsasoan lan egitera. Lehengo bizimodua albo batera uztea erabakigarria izan zen, pentsamoldea aldatu arren koadrila berarekin itzuliz gero azkenean arazo berdinetara itzuliko zela argi duelako. Zentroko gazteekin badu oraindik harremana eta horietako batzuk berriz ere giltzaperatu dituzte, mundu berera itzuli zirelako. “Batzuetan –dio–, kalean norbait izateko gaiztoa izan behar duzu, lapurtu egin behar duzu, errespetatu zaitzaten. Beste batzuetan, etxean arazoak dituzte eta ez daude ondo gurasoekin, ez dute maitasunik sentitzen edo bertan ikusten dutena errepikatzen dute”. Mohamedek bizitza horri uko egin dio eta egun, bera bezala inor eta ezer gabe iristen diren atzerritar adingabeen hezitzailea da. Argi du bere egitekoaren xedea: gazteek zentro batean ez bukatzea. ■

Zumarragako zentroko korridorea.
Gazteek ezin dute lurreko marra gorria igaro.



◉ ASTERKO GAIA ◉

Maria, 36 urte, Hernani

“Mundu guztiak zekien zer ordutan eta non pasako zuten droga. 16 laguneko taldea elkartu ohi ginen eta horietatik lau baino ez gaude bizirik. Eta lau horietatik, HIESA ez duen bakarra ni naiz”.

pdfelement

Heroinan eroriak

Biziraun zutenak non daude?

“*Enamorado de la Muerte*” abesten zuen RIPeK. Iosu Exposito Eskorbutoko gitarra-joleak ere erruleta errusiarrarekin konparatzen zuen heroina *txutea*, “baina sei baladun erruleta errusiarrarekin”. Talde biak 80ko hamarkadan jaio ziren, punk mugimenduaren baitan, eta bietako taldekide gehienak gazte hil ziren, zaldi zuriak Euskal Herria gogor gaztigatu baitzuen. Egund 40 eta 50 urte artean izango lituzkeen belaunaldi galdua gaindosiak, HIESAk edota suizidioak eraman zuen. Batzuek, erruleta errusiarra gainditzea lortu zuten arren, egund oraindik marjinazio egoeran, kartzelan edo droga-mendekotasuna gainditzeko tratamenduren batean daude. Euren egoera eta esperientziak kontatu dizkigute.

“**HEROINAREKIN** amodio-gorrito harremana duzu. Hasieran dena oso polita da, baina hila-beteetara goizean altxatu eta gorputz guztia minberatua duzu, arima bera minbera duzu eta badakizu utzi behar duzula edo hil egingo zarela, baina ez dakizu nola”, dio Gorkak. Azken finean, Mariaren hitzetan *yunkia* izatea ez baita xiringarekin zulatzea, jarrera bat baizik: “Zure bizitza albo batera utzi eta behar duzun *txutea* lortu arte edozer gauza egiteko prest zaude, baita zure ama saltzeko ere”. Gorka eta Maria 80 eta 90eko hamarkadetan Euskal Herriko paisaiaren zati bihurtu ziren drogazaleetako bi dira. Garai hartan, herri ia denetan heroinomano talde handiak biltzen zituzten parke, auzo edo zonaldeak aurki zitezkeen.

Bilbo zen salmenta gune nagusia eta bertan trafikatzailer handiek txikien artean banatzen zuten droga. Bizkaian, Barakaldo eta Sestaoko zonaldean ere mugimendu handia zegoen; Gipuzkoan, Donostia eta Irunen; Nafarroan, Iruñerrian; eta Araban, Gasteizen kontzentratzen zen batik bat. Hala ere, oro har herri gehienetan heroina asko saltzen zen eta portua zutenetan kontsumoa are handiagoa zen. Hain zuzen, hemen kostako herriak izateak asko markatu zuen heroinomanoaren profila: beste lekuetan heroina marroi gehiago zegoen bitartean —erre egin ohi zena—, hemen heroina zuria zen nagusi, puruagoa eta batez ere injeztatua kontsumitzen zena. Ondorioz, xiringak erabiltzeagatik iberiar penintsulan infekzio gehien jasan zituen lekua Euskal Herria izan zen, Kataluniarekin batera. Emaitzak ez dira xamurrak izan: datu zehatzik ez dagoen arren, gutxi gorabehera heroina kontsumitzaileen herena hil

MIKEL GARCIA
Argazkiak: Dani Blanco

egin zen, beste heren batek aurrera ateratzea lortu zuen eta beste herena oraindik marjinazio egoeran, kartzelan edo droga-mendekotasuna gainditzeko tratamenduren batean dago.

Gurean heroinak halako eragina izan bazuen, neurri batean permisibitate handia zegoelako izan zela diote elkarrizketatu ditugun heroinomano ohi eta familiarrek. Droga lortzea eta trafikatzeko oso erraza zen eta ez zegoen kontrol politzial handirik. Zergatik? Gazteak politikan ez sartzeko eta bare mantentzeko bidea drogak zirela aintzat hartzen duen teoria oso zabalduta dago. “Poliziak paso egiten zuen, hori argi dago —dio Gorkak—. Gure herriko droga-saltzaileak nahi beste saltzen zuen, arazorik gabe, eta poliziaren salaria izango zen, herrian beste gamelurik agertzen bazen segituan atxilotzen zutelako. Atzean diruarekin eta politikarekin lotutako interesak zeuden”. Azkenean, leku gehienetan herritarrek izan ziren heroinarekin akabatzeko indarra egiten hasi zirenak.

Permisibitateari, garai hartako liberalizazioa gehitu zitzaion: gizartearen konbentzionalismoei iseka egiten zien punk mugimenduak norbanakoaren askatasuna aldarrikatzen zuen eta gauza berri guztiak probatzen ziren, askotan heroinaren benetako ondorioak ezagutu gabe. Gorka —erreportaje honetako protagonistei izena aldatu diegu— Donostialdekoa da eta 40 urte ditu; 17-18 urterekin hasi zen heroina kontsumitzen, koadri-lan: “Gaur egun, nahi izanez gero bada lana, baina orduan ez zegoen eta ez genuen motibazioirik; porrot asko estaltzeko edan egiten genuen, erre, *speed* hartu... Eta horrek asetzen ez zintuenean, heroinara jotzen zenuen”. Heroina

Gazteak politikan ez sartzeko
eta bare mantentzeko bidea
drogak zirela aintzat hartzen
duen teoria oso zabalduta dago



Gorka, 40 urte, Donostialdea

“Garai hartan, seropositiboa bazinen medikuarengana joan eta zuzenean HIESA zenuela esaten zizuten, sei hilabete geratzen zitzaizkizula. Erreakzioa? Gehiago sartzea, angustia eta beldur hori estaltzeko”.



Heroina lo-belarretik lortzen da.

zuria kontsumitzen hasi zen, egunean 2.000 pezeta inguru (100 bat libera) bi-hiru lagunen artean, baina pixkanaka gorputzak gehiago eskatzen ziola konturatu zen. Goizean eta arratsaldean sartu beharra zeukan eta urtebetera goizean, eguerdian, bazkalorduan, arratsaldean, gauean... Ezin bizi drogarik gabe eta lortzeko denetik egin duela esan digu: labana hartu eta pertsona bati lapurtzea, esaterako. “*Txutea* beti lortzen duzu, era batera edo bestera, baina beti. Dakizuna da gorputzeko ondorez hori gainetik kendu behar duzula eta ez zara errudun sentitzen lapurtzerakoan; lehenengo heroina da eta gero gerokoak. Azkenean, lagunak, neska, familia, lana... galtzen duzu, bizitza galtzen duzu”. Hala ere, 1990ean, 23 urterekin Gipuzkoako Gizakia Helburu programan sartu eta heroina uztea lortu zuen. 2004. urtera arte inolako drogarik hartu gabe egon da eta horregatik badaki heroinatik ateratzea posible dela. “Hau beti gusatzatzen zaizu, baita utzi duzunean ere, baina gauzak balantzan jarri eta erabaki bat hartu behar da”. 2004an, ordea, istripu batengatik ospitalera eramane eta bost egunez morfina eman zioten, mina kentzeko. “Barruan dudak demonioa esnatu zidaten; ez nuen uste berriz eroriko nintzenik, baina aurrezki-libretan nuen dirua atera eta dena popatik hartzera joan zen. Heroina erosteko lapurretengatik kartzelan bukatu nuen, 72 kilorekin –orain 98 pisatzen ditut– eta ez dakit nolatan ez nintzen hil. Azken finean, kartzelan egotea ez da hain txarra, kanpoan *txutea* lortzearen edozer gauza egitera iritsi zaitezkeelako edota edozer gauza gerta dakizukeelako, pistola hartu eta auskalot!”. Kartzelatik Gizakia Helburuk atera zuen eta

Garai hartan ez zituzten xiringak farmazian saltzen eta euren artean berrerabiltzen zituzten. Kartzeletan ere ez zen xiringarik banatzen

orain errehabilitazio prozesuan dago berriz. Lana, auto polit bat eta emakume eder bat nahi omen ditu; zoriontsu izan nahi du. “Heroina hor dago, espero dut nire bila ez etortzea eta ni ere bere bila ez joatea, baina hainbeste urte eta gero ezin dut ziurtatu eroriko ez naizenik. Dena den, behin betiko uzteko borondatearekin nago”.

HIESAren mamua

Gorkak, gainera, heroinak berekin ekarri zuen zama eramane beharko du betiko: seropositibo izatearena. Garai hartan ezin zen xiringarik lortu, ez zituzten farmazian saltzen eta euren artean berrerabiltzen zituzten, infekzioak kutsatuz. Kartzeletan ere sistema hipokrita zen nagusi: kontsumitzea debekatua zegoenez, ez zen xiringarik banatzen, eta Giza Immunoeskasiaren Birusarekin sartzen ziren presoek bikoitza ateratzen zen kutsatuta.

Gorkak 20 urterekin jakin zuen seropositiboa zela: “Oso kolpe gogorra izan zen, orduan heriotza zelako, ezjakintasun handia zegoen. Betiko izorratua uzten bazaitu ere, gaur egun eramangarriagoa da, baina garai hartan medikuarengana joan eta zuzenean HIESA zenuela esaten zizuten, sei hilabete geratzen zitzaizkizula. Erreakzioa? Gehiago sartzea, angustia eta beldur hori estaltzeko”. Asko eta asko izan ziren HIESAz edo hepatitisaz kutsatutakoak eta asko eta asko gaitz horiek hildakoak. “24-25 urterekin hilero zegoen lagun bat eskeletan, nik mordoak galdu ditut, eta zure lagun minen eskelak ikustea ikaragarria da, hain gaztel! Batez ere eskela horietan zure burua islatuta ikusten duzulako.

Luis, 40 urte, Arrasate

“Beldurra galtzen diozu denari; putzu batetik xiringa bat hartu eta erabili izan dut. Gaindosiari ere beldurra galtzen diozu; nik bikotea erreanimatu behar izan nuen. Asko izutu nintzen, ez dut inoiz ahaztuko. Eta hala ere, drogak hartzen jarraitu nuen”.



Heroina borrarero beldurgarria da”. Horrez gain, seropositiboen inguruko aurreiritzi asko zegoen orduan, heriotza eragiten zuen gauza ezezaguna zelako. 90eko hamarkada hasieran, adibidez, Durangoko moja eskolatik mutil bat bota zuten seropositiboa izateagatik, gurasoen presioak eraginda.

Gorkak ez du bere lagun askoren patua jarraitu, baina hiltzorian egon zen, kartzelan zainak moztuta bere buruaz beste egiten saiatu baitzen. Beste heroinomano askok ere suizidioa izan zuten ihesbide. Hain zuzen, guk hona ekarri ditugun bost historietatik lauk euren buruaz beste egiten saiatu zirela aitortu digute. Luis da horietako beste bat, gorabeheraz betetako bizi-modua eraman duen 40 urteko arrasatearra (Gipuzkoa). 18 urterekin anfetaminekin hasi eta uztea lortu zuenean, lagun batek proposatuta heroina probatu zuen, 20 urterekin. Arrasaten heroina asko mugitzen zela dio eta tabernan lan egiteko egunero kontsumitzen hasi zela, gramo bat inguru, hasieran sudurretik, gero zilarrarekin eta azkenik injektatuta. “Ezkutuan mantendu nuen, baina azkenerako, benetan behar duzunean berdin dizu, eta edonola eta edonon sartzen duzu”. 24 urterekin errehabilitazio zentro batera joan zen Gasteizera eta ordutik tarteka drogak utziz eta berriz eroriz eman ditu urteak. “Zaila da arazo bat duzula onartzea, ez duzulako ikusten edo ez duzulako ikusi nahi. Eta ongi zaudenean ere, ‘egun batean hartuta ez zait ezer gertatuko’ pentsatzen duzu, zure burua engainatzen duzu, eta sartu orduko barruko denak eztanda egiten dizu berriro... Horrela 20 urtez”. Bitarte horretan, diru asko lapurtu du Luisek, hamar alditan baino gehiagotan egon da kartzelan, familiarekin eta bikoteekin arazoak izan ditu...

“Heroina utzi eta kokaina zainetan injektatzera iritsi nintzen. Inoiz ez nuen pentsatu kokaina zainetan sartuko nuenik, baina azkenean beldurra galtzen diozu denari, heroinak horretara eramaten zaituelako; putzu batetik xiringa bat hartu eta erabili izan dut”.

10 urteko semea eta 6 urteko alaba ditu; drogaren erruz ez dituela behar bezala zaindu aitortu digu eta horrek min handia ematen diola. “Alaba aiton-amonekin zegoen egunetan, zazpi gramo kokaina bata bestearen atzetik sartzeko gauza nintzen, gaindosiari ere beldurra galtzen diozulako: nire bikoteari gertatu zitzaion eta erreanimatu behar izan nuen, bularrak presiona-

Potentzia handiko opiazeoa

Heroina morfina 1898an sintetizatu zen eta Bayer laborategiek komertzializatu zuten, 1924an debekatua izan zen arte. Lo-belar edo opio-belar zelai zabalak dituzten lurraldeetatik eskuratzen da batik bat (Thailandia, Birmania, Afganistan...), baina Kolonbian eta Mexikon ere landatzen da. Alkoholen eta medikamentu ugariren antzera, opiazeoen familiakoa da. Opiazeoek efektu analgesiko garrantzitsuak dituzte, burmuina lokartzen dute eta nerbio-sistema nagusiaren depresoreak dira. Halaber, Marta Fernandez de Agirre (irudian) Bilboko Gizakia Fundazioko medikuaren hitzetan, besteak beste idorreria, disfuntzio sexualak, maskuri-narradura eta arnas depresioa dira bigarren mailako efektuak. Hain zuzen, arnas-gelditzea da gaindosiaren efektu larriena eta oraingo heroina lehengoa bezain purua ez delako kopuru handiagoa kontsumitzen dutenez, puruagoa saltzen dietenean gaindosi izateko arriskua dago. Injekzio bidez sar daitezkeen aire burbuilak eta infekzioak ere oso arriskutsuak dira. “Hemendik jende asko pasa da, baina oraindik ez dut garbi dituzten ondorio txarrak heroina substantziarenak diren edo mendekotasunari lotuta jasandako marjinazio, higiene eza eta historia klinikoarenak”, dio medikuak.



Heroinan eroriak

tu, ahoz ahokoa... Asko izutu nintzen, ez dut inoiz ahaztuko. Eta hala ere, drogak hartzen jarraitu nuen. Nolatan?... Ez dut erantzunik”. Neurri handi batean, heroinaren mende emandako urteak urte galduak direla dio, orain familia orekatu bat eta lana izan zitzakeelako, errehabilitazioan egon ordez.

Izerdia, hotzikarak eta sexu ezina

Heroinarengandik askatzea, baina, ez da erraza. Diseinuzko drogen mendekotasun psikologikoa handiagoa den arren, heroinaren abstinentzia sindromea oso gogorra da eta askok benetako beldurra diote kontsumitzen utziz gero hori pasa behar izateari: “Izugarrizko ondoeza daukazu –deskribatu digu Luisek–, muskulu guztiek tira egiten dizute, ez zara ia zutik egoteko gai, botaka ari zara etengabe, sekulako beherakoarekin, beroz izerditan, hotzikarekin, dardarka, aztoratuta... Hilabeteak eman ditzakezu dena nahasia duzula: jana, sexualki funtzionatzeko gaitasuna, gibela... Organismo osoa. Gauetan berriz lokartu ahal izan arte hilabeteak pasa ditut nik, egunak eta egunak ezin lo harturik, eta buruari ere eragiten dio. Erdi eskizofreniko bukatu duen jendea ezagutzen dut eta beldurra ematen dit. Behin, txute bat sartu eta besoa tente geratu zitzaidan. Ezin izan nuen hiru hilabetez mugitu”.

Josek ere burutik oso gaizki egon izan dela aitortu digu, paranoia handiekin. 37 urte ditu eta Barakaldokoa da. Goiztiar hasi zen: 7 urterekin tabakoa erretzen zuen, 13rekin haxixa eta 15-16rekin heroina injektatzen hasi zen. “Barakaldoko auzo guztietan eta Bilbon asko kontsumitzen zen. Cortes kalea gune nagusietakoa zen, San Frantzisko kale ondoan. Prostitutei gelak alokatzen zizkien emakumeak droga saltzen

zuen eta pisuetan bertan injektatzea zen ohikoen”. Errez efektu bera lortzeko gehiago erosi behar zenez, eta orduan HIESAren gaineko oraingo kontzientziatorik ez zegoenez, %95ak orratzarekin kontsumitzen zuela azaldu digu, eta heroinaren kalitatea primerakoa zela: “Hasieran eguneko 1.000 pezetarekin, gramo laurden batekin nahikoa zenuen, oso purua zen. Egunean gramo bat baino gehiago sartzea ia ezinezkoa zen eta orain egunean bost gramo sar ditzake jendeak, oso aizundua dagoelako; ez dakit nola ez diren garai hartan bezala hiltzen, ziurrenik gaur egun erre egiten delako, zainetan sartu beharrean”. Espainiako hegoaldean ere egona da eta han kontsumitzen beranduago hasi zirela kontatu du, eta heroina ez zela Bilbokoa bezain ona. Argi du Euskal Herrian ezikusiarena egin zutela, bestela ezinezkoa izango zela hainbeste heroina mugitu izana.

Desintoxikazioa ere goiz hasi zuen Josek, 19 urterekin, eta hamaika urtez egon da ezertxo ere kontsumitu gabe, heroinak ematen zion bakea bizitzan lortua zuelako: lana, neska-laguna, bidaiatzeko aukera... Droga-mendekotasuna gainditu eta bizitza normalizatua daramaten kasuetako bat zen, 1999an, lana eta parrandak jasateko kokaina hartzen hasi zen arte. Kokainaren beherakadari aurre egiteko heroina kontsumitzea izan zen hurrengo pausoa eta honen mende bukatu zuen beste behin. Orain lanean da, autonomo, baina drogek ondorio desatsegina utzi diote: 6 urteko semea nahi adina ikusteko oztopo legalak.

Metadona eta heroina: tratamendu egokiak?

Gainditzeko, Josek lau hilabete daramatza Bilboko Gizakia Fundazioan, modu kontrolatuan metadona hartzen. Dosia jaitsiz pixkanaka uzte-



Jose, 37 urte, Barakaldo

“Bilbon, Cortes kalea gune nagusietakoa zen, San Frantzisko kale ondoan. Prostitutei gelak alokatzen zizkien emakumeak droga ere saltzen zuen eta pisuetan bertan injektatzea zen ohikoen”.



ko asmoa du. Errehabilitazio programetan, ezer hartu gabe droga-mendekotasuna gainditzea da lehen aukera eta tratamenduek huts egiten dutenean, metadona erabiltzen da. Euskal Herrian, tratamenduan daudenek substantzia hori EAEn 1991tik eta Nafarroan 1993tik farmazietan jaso dezakete, kontrolpean. Heroina bezalako opiazeo indartsua beste opiazeo indartsu batengatik ordezkatzearan datza, baina medikuaren segimenduarekin eta erabilera seguruarekin –ahotik hartzen da–. Metadonak 24 orduko bizitza izan ohi du, heroinak dituen 8 orduen aldean eta Bilboko Gizakia Fundazioan, esaterako, batez beste eguneko 50-60 miligramo ematen dizkiote pazienteari. Are gehiago, horrek ere huts egiten duenean, medikuaren kontrolpean heroina banatzearen aldeko proposamena onartu du Eusko Legebiltzarrak, baina ezin da egin, Espainiako Osasun Ministerioak ez duelako heroina medikamentu bezala onartzen. Katalunian, Andaluzian, Suitzan eta Holandan heroina banatuz egin diren saiakera klinikoei, ordea, emaitza baikorrak lortu dituzte. Jose narkosaletan heroina banatzearen aldekoa da, kontrola egoteak egoera txarrean dagoen heroina, droga-salerosteta edota marjinazioa saihestuko lituzkeelako.

Metadonaren inguruan berriz, kontsumitzaileek iritzi kontrajarriak dituzte. Gorkari “zabor hutsa” iruditzen zaio: “Ona du ez dela xingararik erabiltzen eta gizartean lasaitasuna dagoela heroinomanoak ez duelako lapurtu beharrik, baina metadonarekin heroina dosia asean duzue, kokaina sartzen hasten zara, are okerragoa dena. Gutako asko politoxikomanoak gara: gauza bat estali eta beste baten beharra sentitzen dugu”. Duela bost urte antsietate krisiengatik medikuak metadona errezetatu zionean, Mariak ere ez zuen hartu nahi izan, baina orain ez du gaizki ikusten: “Ez zait metadona hitza gustatzen, nire medikamentua da eta hala onartzen dut. Orain egunean 35 miligramo hartzen ditut eta gutxitzen joatea da asmoa”.

Heroinomanoen –eta oro har drogazale guztien– profilari erreparatuta, gizonezkoak dira gehiengo nabarmena. Hernaniko (Gipuzkoa)

Bigarren belaunaldi astindua?

Kontsumitzaile berrien artean heroina apenas hartzen den –kokaina hartu osteko ondorentzako eta errea, asko jota– eta kokaina, anfetaminak eta disainuzko drogak daude bogan, baita profil marjinala ez dutenen artean ere. Estimulagarriak hiper-alerta egoera sortzen dute eta buruko gaitzak izateko aurretiko joera dutenengan gaixotasun horiek eragin ditzakete. Epe luzeko ondorioak oraindik jakiterik ez badaude ere, burmuinean heroinak baino eragin handiagoa dutela uste dute adituek. Heroinen emaitzak ere beranduago ezagutu genituen...

Mariak, ordea, ezin izan zuen zaldi zuriaren hatzaparretatik ihes egin. 36 urte dauzka, heroinaren munduan oso gazte sartu baitzen: 14 urte-rekin 20 urteko mutil-lagun heroinomano batekin ibiltzen hasi zen eta horrek drogetara eraman zuen. “Bere maitalea heroina zen eta ni bigarren maila batean nengoen, horren parte izan nahi nuela erabaki nuen arte”. 80ko hamarkadaren bigarren bosturtekoan, Hernaniz gain Donostiako Pakea zonaldea eta Errenteria (Gipuzkoa) heroina gune garrantzitsuak zirela du gogoan. “Ez zegoen ezer esan beharrik, mundu guztiak zekien zer ordutan eta non pasako zuten droga. 16 laguneko taldea elkartu ohi ginen eta horietatik lau baino ez gaude bizirik. Eta lau horietatik, HIESA ez duen bakarria ni naiz”.

Kontsumitzen hasi eta lehenengo lau urteetan, heroina erosteko behar zuten dirua mutil-lagun garraiolariak erraz lortzen zuten, azpikeriekin lanean ostuta. Arduradunak konturatu zirenerako, 12-13 milioi pezetako zuloa utzi zuen. Enpresatik bota egin zuten eta bikotea Logroñora (Errioxa) joan zen, giro hartatik urrundu nahian. Han ere, ordea, ez zen heroinarik falta. Hernanira 19 urterekin bueltatu zen Maria, haurdun. Umea izan behar zutela-eta, heroina uzteko errehabilitazioa hasi zuen mutil-lagunak, baina Mariak ez zuen sinesten heroinarik gabeko bizitza eraman ahal izango zuenik: “Azkenean mutilagatik sartu nintzen, haurdun egonda ere ez nintzelako gai izan umeagatik uzteko. Alaba batik bat nire gurasoek hezi dute eta duela urte eta erdi arte errudun sentitu naiz, egoista, baina berak inoiz ez duela horrela ikusi esan zidan. Orain 16 urte ditu eta drogek ez dute batere erakartzen”. Lau urteko desintoxikazio programa eta gero, errealitatera bueltatzea zaila izan zen Maria eta bere senar bilakatu zenarentzat, baina sei urte drogarik kontsumitu gabe egotea lortu zuen. Dibortziatu zenean, denbora batez pilula eta xarabeen mende egon zen, baina heroina ez du berriro inoiz probatu. “Hori benetan gustatzen zaidalako eta berriz probatzen badut badakidalako ez dela jolasa izango, ia konturatu gabeko zerbait... Guztiz kontziente egin-

Metadona, gaindosiak eta HIESA


TRATAMENDUAK

- ▶ EAEan, 1996an desintoxikazio tratamenduren bat hasi zuten 2.024 drogadiktoen %86,4 heroinomanoak ziren. 2004an hasi zuten 1.894 drogadiktoetatik berri, %34,5 ziren heroinomanoak.
- ▶ Metadona tratamenduan EAEan 3.019 pertsona zeuden 2004an; eta Nafarroan 800 pertsona zeuden 2005ean.
- ▶ Tratamenduetatik at 500 heroinomano baino gutxiago zeuden 2002an EAEan. Horietatik %77,8 gizonezkoak ziren, batez beste 33 urte zituzten, %65ek kalean egiten zuten lo eta hamarretik bederatziraino izan zituzten atxilotuak izan ziren.
- ▶ Nafarroan, 1990-2000 urteen artean heroinomanoen kopurua 1.552 eta 2.058 artekoa izan zen.



HERIOTZAK

- ▶ Nafarroan, 1990-2000 urteen artean 600 pertsona inguru hil ziren heroinaren eruz. Ikerketarako aztertutako 1.231 heroinomanoetatik, urte horietan 177 HIESAgatik hil ziren eta 76 gaindosiagatik.



* Datuetako batzuk hurbilketaak dira.
Iturriak: Drogomedia, Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritza, Nafarroako Gobernuak Droga-mendekotasunen Planeko Zuzendaritza.

go nuke. Drogak maila batean daude, eta maila gorenean, heroina”.

Familia eta bidean gelditutakoak

Mariak bi urte daramatza bere gurasoei harreman ona mantenduz, eta hasieratik asko lagundu dutela esan digu. Kasu askotan, ordea, familiak amore ematen du, jasan behar duten oinazeari ezin eutsirik. “Nire familian eta familia askotan azkenean ezinezkotzat uzten zaituzte —dio Luis—. “Tipo honekin jada ez dakigu zer egin, mundu guztia izorratzen ari da, utz diezaiogun bere bizitza egiten eta hiltzen bada, arazoa bukatuko da”; horrela ikusten dutela uste dut”.

Jon 39 urteko irakasle zarautzarra da. Arreba Maitek orain 45 izango lituzke, baina 15 urterekin heroinaren munduan sartu eta 15 beranduago, 30ekin, ospitalean hil zen, ama alboan zuela. “Ama izan zen hil arte ondoan geratzeko gauza izan zen bakarra, eurak direlako familiaren euskarri”. Zarautzen ere droga asko mugitzen zela gogoan du Jonak, eta gehienbat heroina; kokaina aberatsen droga zen. Drogak arreba bereganatu zuenetik, gorroto-amodio harremana izan zuen familiarekin. Gaizki zegoenean laguntza eskatzen zien eta ondoren etxetik alde egin eta denbora luzez ez zuten bere berri izaten. “Guk beti lagundu genion eta ez genekien ongi egiten ari ote ginen, agian hobe zen sufritzen uztea, egoeraz jabetzeko, baina hori esatea erraza da... Horrelako egoera baten aurrean, edo paso egiten duzu, edo guztiz inplikatzeko zara eta hain gertuko norbait ezinean eta bere burua alferrik galtzen ikusteak izugarri gogortzen zaitu”.

Maite zentro ugaritan egon zen, baina alferrik. “Bere burua trenbidera bota arren bizirik

atera zen, elbarri, eta bisitatzera joan ginenean esan zidan: ‘Nik ez dakit drogari gabe bizitzen’. Hain gazte eta bizitzeko gogorik ere ez zuen”. Arreba fisikoki sendoa zela eta seropositiboa izanda ere, bere burua laga zuelako ahulduta hil zela uste du Jonak, pneumonia jota, baina nahi izan balu oraindik bizirik legokeela.

Ongi zegoenean, ordea, oso neska alaia zen, beti parranda eta saltsa guztietan. Nabarmen-tzea ere asko gustatzen zitzaion eta herrian oso ezaguna zen. Garai hartan, hiru belarritako, sudurrean *piercing*-a eta ilea hiru koloretan eramatea ez zen oharkabe pasatzen, “eta punkyark drogadiktoak ziren gizartearentzat”. 15.000 biztanleko herrian denek elkar ezagutzen zuten eta

arrebaren inguruko zurrumurru asko entzuten zituzten senitartekoek: “Hemen eta han dabil, eta gu agian non zegoen ere jakin gabe”. Baina arazoa ez zuten inoiz ezkutatu eta Maite hil zenean ere, HIESAgatik izan zela jarri zuten eskelan, gizarteak jakin zezan gaixotasun hau bazegoela eta jendea hiltzen zuela. Haatik, gizartearen presioa jasatea beti ez da erraza: Mariaren amari bizilagunek doluminak eman zizkieten Maria haurdun geratu zelako eta Luisen lagunek baztertu egin zuten heroinomanoa zela jakin

zutenean. Arrasaten denek ezagutzen dute eta lan bila joan denean ate asko itxi dizkiote. “Jendeak oso gaizki begiratzen zaitu edo ez dizute begiratu ere egiten”, dio, eta horregatik, Arrasatera itzuli beharrean Donostian bizitza berri bat hasteko asmoa du. Hala ere, elkarriketatu guztien kezka nagusia egungo gazteak dira, etorkizunean historia errepikatu ez dadin eta zaldi zuriak berekin ekarri zuten marjinazioa eta heriotzaren arrastotik libra daitezen. ■

“Agian hobe zen sufritzen
uztea, egoeraz jabetzeko,
baina esatea erraza da... Hain
gertuko norbait bere burua
alferrik galtzen ikusteak
izugarri gogortzen zaitu”

Jon, drogazale baten anaia

Aitor Subiza Iruñekoa da, 24 urte ditu eta 154ko adimen-kozientea. Bere gaitasuna abantaila dela dio, baina ez duela ozen esaten, "etiketatu zaitzakutelako; harroa zarela pentsa dezakete eta gaizki ikusia dago".

• ASTERO GAIA •

Superdotatu izatea Abantaila ala arazo?

Ikasle azkarrek, erraztasunez nota onak ateratzen dituztenak, buruhauste gehiegirik gabeko jenioak... Buru pribilegiatua izateak bizitza erraztu egiten duela irudituko zaio askori. Baina superdotatuen eskola-porrota %60koa da; askotan besteekiko desberdin eta arraro ikusten dute beren burua, *arazoa* zein den ulertu gabe; hezkuntzan eta Administrazioan ez dago halako kasuak detektatzeko ez eta tratatzeko irizpide bateraturik; eta gurasoek diote guztiz babesgabe sentitzen direla. Hainbat superdotaturentzat, abantaila baino, ahalmen berezi hau benetako zigorra izatera iritsi da batzuetan.

MIKEL GARCIA
Argazkiak: Dani Blanco

“ZURE TRIPA BARRUAN nengoenean, nola jaten nuen?”, galdetu zion Amaiak amari bospasei urterekin. Zilbor-hestearen bidez egiten zuela azaldu zion amak, ulertuko ote zuen zalantzan jarriz. Handik hilabetera, Amaiak berriro: “Ama, Biblia marrazki bizidunak ikusten egon naiz, Adan eta Eva munduko lehen gizakiak zirela zioten, Jainkoak sortuak, baina biak zilborrarekin agertzen ziren eta lehenengoak baziren, noren barruan egon ziren zilborra eduki ahal izateko?”. Horrelako galderak erantzutea ez dela erraza aitortu digu Miren gipuzkoarrak. Amaia alaba txikiena du, 150eko adimen-kozientearekin; helduenak berriz, Anek, 130ekoa dauka eta asko kostatu zaio bere burua onartzea. Horregatik, izen faltsuak erabiltzeko eskatu digu amak. Gutxienez, talentu bereziko neskak direla jakiteak egoerari aurre egiten lagundu dio fameliari, oso ohikoa baita ez zuzenemate. Batez beste 100eko adimen-kozientea dugu gizakiok, baina biztanleriaren %2k 130etik gorakoa dauka (hau da, superdotatua da) eta uste da ikasgela bakoitzeko 100 baino altuagoa duten bat edo bi lagun daudela. Adimen-kozientea adin mental eta adin kronologikoaren arteko ezberdintasunetik kalkulatzeko delako kontuan hartuta, adin kronologikoari dagokion adin mentala baino altuagoa izateak desoreka emozional handiak eragin ditzake haur superdotatuengan, bereziki zer duten ez badakite. “Arazoak zituen 18 urteko gazte bat psikologora eramane zuten gurasoek, azterketa bat egin zioten eta superdotatua zela ondorioztatu zuten –kontatu digu Mirenek–. Orduan, mutila negar

batean hasi zen, beti pentsatu izan zuelako eroa zegoela, ez zuela burua ondo eta oso desberdina zela. Ez bada detektatzen, pertsona horrek asko sufritu dezake”. Azken finean, beraiek badakite zer bait berezia dutela, desberdin senti daitezke eta hori emozionalki ez da ona, taldeak ez duelako onartzen diferentia dena.

Ane, igerileku hondoan

Horri buruz, gainera, asko daki Mirenek, alaba zaharrenak urteak behar izan dituelako bere abilezia intelektualak abantaila gisa hartzeko. Hezkuntza sistemak halakoak antzemateko protokolorik ez duenez, beste arrazoi batzuegatik ohartzea da normalena. Mirenen kasuan, alaba txikia depresioak jo zuen 5 urterekin, psikologora eramane eta honek esan zien fisiologi 5 urte izan arren, mentalki 9 zituela eta horregatik lagunekin aspertu egiten zela, ez zuen inguruan interesik topatzen eta horrek guztiak tentsioa eta antsietatea sortzen zion. Gurasoak gaiaren inguruan irakurtzen hasi ziren eta hiru urte helduagoa den alaba ere ezau-garri askorekin bat zetorrela ikusi zuten. Hala, gaitasun berezien detekzioarako Euskal Herri-tik gertuen dagoen zentro entzutetsura eramane zituzten biak, Valladolideko Huerto del Rey zentro-ra, eta han berri kezkarria jaso zuten: Ane, alaba zaharrena, superdotatua zen, bai, baina depresio oso sakon batean sartzen ari zen, suizidiorako joerekin, bere buruaz oso irudi txarra zuelako. Halaber, ikastolan nota txarrak nahita ateratzen zituela jakin zuten, ez nabarmentzeko, batez ere nesken artean ohikoa den jarrera. “Gauzak ulertu, garatu eta sortzeko besteek

Adin kronologikoari dagokion adin
mental baino altuagoa izateak
desoreka emozionalak eragin
ditzake haur superdotatuengan

Superdotatuak

Herentzia genetiko

Gaitasun intelektualen %70 genetikoki jasotzen dela diote teoria batzuek eta herentzia %50ekoa dela beste batzuek, baina gaitasun horiek lantzea inguruko faktoreen mende egongo da. Aritu batzuen arabera, 11 urte izan arte ezin da talentu apartekotasuna diagnostikatu, intelektualki funtzionatzeko era orduan egonkortzen delako, baina lehenengo 3 urteetan dagoeneko haurra superdotatua den antzemateko azterna garbiak ikus daitezkeela dio Aizpuruak. Adin horretan ez da jenioa izango, baina neurri batean ondorio genetikoa denez, dohainak hor egongo dira.

baino gaitasun handiagoa dutela badakite —dio Juan Mari Aizpuru psikologo eta Olereta Ikastolako orientatzaileak—, baina gaztetan norberak nahi duena taldean integratua egotea da eta kanpoan ez geratzeko, berezitat har ez dezaten, dituen gaitasunak ezkuta ditzake”. Ane pianoa jotzen hasi zen, baina lehiaketa bat irabazi eta zaletasun hura ere utzi zuen, oharkabe pasatzeko; bere lagun minen ere ez dakite superdotatua denik. Gainera, txikitan berak 10 minututan ulertzen zuena egunero errepikatzen entzun beharrak tentsio handia sortzen zion eta ez zuen horri aurre egiteko baliabiderik. “Batzuetan munstro sentitzera iristen dira”, dio amak. Lau urte eman ditu psikologotik eta Aneren hitzetan, igerileku honoan bueltak ematen egon ostean, bertatik atera duen eskua izan da psikologoa, bere burua ezagutu eta onartzen lagundu diolako. Egun, 17 urterekin, nota onak ateratzen ditu eta ez du arazo emozionalik, ez nabarmen-tzeko nahiak badirau ere.


Amaia eta Oihana, errebelde

Dena den, nortasunak zeresan handia du horrelako gaitasunarekin bizitzeko orduan. Mirenen alaba txikia, adibidez, oso irekia da eta ikastolan asko aspertu arren eta bere lagunen interes berak ez izan arren —tontakeriak esaten dituztela dio—, nota onak ateratzen ditu, gelako delegatua da eta nahi duen guztia lortzen du, egoera edo jendea manipulatzeko duen trebeziari esker. Gainontze-ko ikasleekin “experimentatzen” duela ere onartu du eta hainbat irakaslek ez du ondo ikusten bikain osatutako arrazonamenduen bidez beraien teoriari kontra egitea. Ez dio inori esan adimen-koefiziente altua duenik, baina inguruko jendeak susmatzen duela uste du amak. “Hau, alaba heldua ez bezala, frenatu egin behar dugu”. Are errebeldeagoa da Oihana bizkaitarra —berak ere ez du benetako izena eman nahi—: denaz paso egiten du, baita bere Psikologia ikasketek ere. Gainera, psikologoak baino gehiago zekiela eta, kontsultara joateari utzi zion eta psikologoak berak onartu zuen Oihana benetako erronka zuela. Gorputza tatuajez eta *piercingez* bete duen 20 urteko neska honen historia bitxia da. Urtetan zerbait berezia zuela susmatu ostean, duela hila-bete pare bat egindako proban ziurtatu du superdotatua dela: 134ko koefizientea du eta horrek gauza asko ulertarazi dizkio. Ez zekien zergatik zen hain zakarra eta desatsegina, zergatik asper-tzen zen hainbeste elkarriketetan eta hain azkar galtzen zuen arreta, zergatik iruditzen zitzaion besteek hain geldi hitz egiten zutela eta bere adinekoek ekarpenik egiten ez ziotelako nagusiago-ekin hitz egitea zergatik gustatzen zitzaion. Orain, konturatu da horrek bere talentu berezia-

Nola jakin?

Adimen-koefizientea = adin mentala X 100 / adin kronologikoa. Wechsler eskalak adierazten du gizartean nola banatzen den adimen-koefizientea: gehiengoak 100ekoa du eta %2,2 superdotatua izango litzateke. Ikerketen arabera, 170.000 haurretik batek 170etik gorako koefizientea du. Baina nola antzeman haur batek intelektualki gaitasun bereziak dituen? Kanpoko erreferentziekin edo adin horretan normala denarekin alderatzea da onena, baina beti ez da erraza izaten. Normalean azkar hasten dira hitz egiten eta oinez, dagokiena baino lehenago, bizpahiru urterekin irakurtzen eta idazten hasi daitezke eta autonomia maila handia erakutsi ohi dute. Baina agian duten jakin-nahi ezohikoa eta beren adinerako egiten dituzten galderen sakontasuna —edo bitxitasuna behinik behin— dira arrasto nabarmenenak. Seme-alabak behartsuei eta

Wechsler eskala
Adimen-koefizientearen banaketa



telebistan ikusten dituen bidegabekeriei buruz itauntzen al zaitu? 3 urterekin odola oso azkar doan galdetu dizu edo 2 urterekin ondorengoa bota?: “Aita, ama, nola daki jendeak hiltzen denean Zerura joateko bidea, bizirik dagoenean ez badaki?”. Orduan, susmatzen hasi...



rekin zerikusia duela eta besteekin harreman hobea izaten lagunduko diola uste du, horrelakoa izatearen zergatia badakielako eta gertuen dituenek ere jakin dezaketelako.

Aitor, ezaugarria baino ez

Beste batzuek, ordea, ez dute uste gaitasun honek beren izaera baldintzatu duenik. Aitor Subiza 24 urteko iruindarrak argi dauka: “Superdotatu hitza ez dut inoiz erabili eta ez zait batere gustatzen. Kozientea nire ezaugarri bat da, baina horrekin zerikusirik ez duten beste ezaugarri asko ditut. Egia da abantaila izan dela eta ez nuke aldatuko, baina test baten puntuazio bat da eta batzuetan garrantzi gehiegi ematen zaio. Jendeak nire adimen-kozientea nahiko luke gauza batzuetarako, baina nik ere, esaterako, hainbatek duen lanerako gaitasuna nahiko nuke beste gauza batzuetarako. Inoiz ez dut ikasi beharrik izan nota onegiak atera gabe gaingidatzeko eta ohitua ez nagoenez, orain askotan lanerako gaitasun falta nabari dut. Jendeak ez du ulertzen gauza biak maila berean jartzea, baina nik parekatu egiten ditut, ez daukazuna beti baloratzen duzu gehiago”. Eskolan motibazio falta zuen arren, bere ikaskideak ere ez zituela oso motibatuta ikusten dio eta harremanetarako ez duela arazorik izan. “Haurra nintzelarik agian eragin zidan eta interesak ez ziren berak, baina neurri txiki batean. Denek ez ditugu interes berak, baina neurtu dezakezu zeinekin hitz egin gauza batzuek eta zeinekin besteez”. Bere ustez, harremanetan garrantzitsuagoa da besteek zutaz pentsatzen dutena, zu zarena baino: “Badaude ezaugarri batzuk ozen esan daitezkeenak, baina koziante intelektualetan altua baduzu ezin duzu esan, etiketatu zaitzakitelako; harroa zarela pentsa dezakete eta gaizki ikusia dago”. Horregatik, konfiantzako jendeak baino ez daki 154ko adimen-kozientea duela.

Ziurrenik, bere gaitasunak txikitatik ezagutzeak asko lagundu

Gaztetan garrantzi handia ematen zaio integrazioari eta desberdina ez izateari, eta ez nabarmentzea da nahia.

Oso sentikorrak dira eta hainbat adituren ustez, barneko sufrimendu hori osagarri garrantzitsua da gaitasun kognitiboak garatzeko, barrutik motibatuta daudelako galdetzeko eta inplikatzeko



dio Subizari horiek ulertu eta ondo bideratzeko. Sei urte zituela, diabetikoa zela konturatu ziren, baina diabetek eskola garaian okerrera egiten zuela-eta, psikologora eramán zuten. Kasu honetan ere, psikologoak proposatu zuen inteligentzi test egitea. Ordutik, adimen-koziante altua ezaugarri bat gehiago bezala onartu du eta abantaila eta arma izan da bere bizitzan. “Gaizki ere erabil dezakezu: fisikoki oso indartsua ez banaiz ere, nahi izanez gero badakit pertsona bati psikologikoki min handia nola egin eta hainbat egoeretatik ateratzeko edo gezurak asmatzeko ere tre-bezia handia dut”.

Sentikor, sortzaile, perfektionista, curioso...

Ezaugarri bat gehiago baino ez dela dioten arren, superdotatuekin lotu ohi den profilarrekin hein handi batean bat egiten duela aitortu digu iruindarrak; esaterako, denek azpimarratu dizkiguten hiru ezaugarriekin: jakin-min izugarria dute, bereziki sentikorrak dira eta bidegabekerien aurrean asaldatzen dira. Jakin-mina asetzeko, eskolatik kanpoko ekintza askotan parte hartu nahi izaten dute. Subizak musika, dantza, ingelesa, antzerkia... egin ditu. Orain, Biologia ikasi ostean, Eszena Zuzendartzako azken urtea egiten ari da Madrilén eta ondoren, Iruñera itzu-

Aparteko talentudun famatuak



- ✓ Muhammed Ali, boxeolari ohia (120-130)
- ✓ Arnold Schwarzenegger, politikaria (132-135)
- ✓ Sharon Stone, aktorea (136)
- ✓ Geena Davis, aktorea (140)

- ✓ Hillary Clinton, politikaria (140)
- ✓ Adolf Hitler, diktadorea (141)
- ✓ Liam Gallagher, musikaria (143)
- ✓ Jim Morrison, musikaria (148-149)
- ✓ Albert Einstein, zientzialaria (160)



- ✓ Isaac Asimov, biokimikari eta idazlea (160)
- ✓ Bill Gates, informatikoa (160-170)
- ✓ Stephen William Hawking, zientzialaria (160-180)
- ✓ Robert James Fisher, xake jokalaria (187)
- ✓ John Forbes Nash, zientzialaria (160-190)

- ✓ Gary Kasparov, xake jokalaria (190)
- ✓ Truman Capote, idazlea (215)
- ✓ Leonardo da Vinci, artista (220)
- ✓ Marilyn Mach vos Savant, idazlea (228, munduko altuena)



li eta antzezlanen bat egiten hasteko gogo du. Amaiak 14 urterekin ingelesa eta frantsesa primeran dakizki eta txinoa ikasi nahi duela errepikatzen dio amari. Halaber, jakin-nahi horren ondorioz oso irakur zaleak izan ohi dira —biografiak gustuko dituzte— eta txikitan, gurasoak mila galderekin erotzen dituzte. Denaren zergatia bilatu nahi horretan, astronomia, unibertsoa eta dinosauroak gustuko gaiak omen dituzte. Heriotzaz ere urte gutxiarekin hasten dira galdezka eta kontzeptua ulertu egiten badute ere, emozionalki onartzeko gai ez direnez, gaizki senti daitezke. Halaber, oso sentikorak dira eta hala aitortu digute beraiek, bereziki bidegabekeriaren aurrean; enpatia oso garatua dute eta gaizki pasatzen duenaren alde jartzen dira. Aitor Subiza boluntarioa da adimen urritasuna duen jendearekin jarduteko eta oraindik zapalduta daudenekin lan egiteak sentikor eta errebelde izatearekin zerikusia izan dezakeela dio. Mirenek berriz, gogoan du bere alaba etxera negar batean iritsi zen eguna, nota onak ateratzen zituen ikasle batek txarrak ateratzen zituen beste bati emaitza galdetu ziolako, umiliatzeko asmoz. Eta Oihanek ezin ditu animaliak sufritzen ikusi; gizon bat bere bizilagunaren zakurra makilaz jotzen erakusten zuten telebistako irudiekin histeriko jarri zen. Hainbat adituren ustez, barneko sufrimendu hori osagarri garrantzitsua da gaitasun kognitiboak garatzeko, barrutik motibatuta daudelako galdetzeko eta inplikatzeko.

Horiez gain, neurri handiagoan edo txikiagoan, beste hainbat ezaugarri lotu ohi zaizkie: hala nola, perfekzionistak eta zorrotzak izatea; hitz eginez eta idatziz espresatzeko gaitasun handia; modu independentean lan egitea; memoria ona; lo hartzeko arazoak —baina behin lo hartuta, REM fase oso sakona—; sormen izugarria; motrizitatean motelagoak eta baldarrak izatea; keinu, elkarrizketa eta xehetasunetan arreta berezia; dena arrazoitzeko kapazitate itzela; edota ironia handia.

Superdotatu emozionalak?

Teoria baten arabera, superdotatua denak maila guztietan izan behar du gaitasuna, baita harremanerako ere, baina Juan Mari Aizpurua ez dago ados: izaeraren arabera, batzuk lotsatiak izan daitezke, edo jendearekin zorrotzak... "eta gaitasun kognitiboak izanda, harremanerako baliabide pertsonalak ez izateagatik superdotatua ez dela esatea erredukzionista iruditzen zait".

Hezkuntza eta Administrazioa itsu

Beste ezaugarri bat ere askotan errepikatzen da superdotatuetan: %60k porrot egiten du eskolan. Kontraesana badirudi ere, arrazoia garbi dute aditu, guraso eta superdotatuek beraiek: hezkuntza sistema ez dago prestatuta normaltasunetik edo batez bestekotik aldentzen den inorentzat, "izan etorkin, adimen urriko nahiz talentu bereziko", gehitu du Subizak. Eskolan inork ez duela inoiz motibatu dio: "Ez da hezkuntza sistema bat, irakaskuntza sistema bat baizik, emaitzari eta gehiengoari begiratzen diote, bestelako zalantzak baztertuz". Legearen arabera, heziketa bereziko ikasleak dira —adimen urritasuna dutenen antzera— eta beraz, laguntza berezia jasotzeko beharra izanez gero, jaso beharko lukete —beraizentzako irakasle edo hezitzaile propioa, esaterako—. Halaber, haurrak ikasturte bat edo bi aurreratzeko aukera aurreikusten da. Aurkitu dugun errealitatea, ordea, oso bestelakoa da: ez dago talentu intelektual bereziko jendea antzemateko protokolorik ez eta horiek hezteko metodologia bateraturik; ez dago apenas gaia lantzeko materialik —are gutxiago euskaraz— ezta baliabiderik ere; plangintza berezirik egitekotan, ikastetxeak bere kabuz egin behar du; eta ikasturtea aurreratzeari ia pentsaezina da, adituek kasuen %75ekin egin daitekeela dioten arren. Hala, bere adin kronologikoari dagokion ikasgelan gainontzeko haurren erritmoa jarraitzea beste aukerarik ez du izaten superdotatuak. Dena den, psikologoak gomen-

datuta, Subizak 7 urte zituenean ikasturte bat aurreratzeari erabaki zuten Iruñeko udal ikastolan —egokitzen plan baten bitartez pixkanaka gela batetik bestera pasaz—, baina ez zuten Administrazioaren laguntzarik jaso: "Alderantziz, institutura joatekoa nintzenean, gurasoek liskarrak izan zituzten Administrazioarekin, urtebete hutsunea zegoela eta titulurik ez zidatela emango esaten baitzuten". Bere esanetan, Administrazioaren filosofia iristen ez direnei laguntzea da eta gaitasun altuagoa izatea ez dute arazo

Elkarte eta eskola bereziak

Euskal Herrian, Garatu (EAEn) eta Anast (Nafarroan) dira gaiari buruz informatzeko eta orientatzeko dauden elkar-teak. Adituen arabera, superdotatuentzat ona da noiz-behinka maila intelektual bereko jendearekin biltzea. Subizari bere gurasoek eskola berezi batera joatea proposatu ziotenean, ordea, ezezkia segituan eman zuen, segregazio zentroak iruditzen zaizkiolako. "Agian akademikoki gehiago aurreratu nukeen, baina horri ez diot inoiz garrantzi handiegirik eman", gehitu du. Iruñean bertan, CTY (Talentudun Gazteentzako Zentroa) nazioarteko erakundeak egoitza bat dauka eta haurrentzat asteen bi ordu inguruko ikastaroak eskaintzeaz gain, ikerketa eta irakasleen prestakuntza sustatzen ditu. Urrutiko hezkuntza ere badute, eta udako campusean, hiru astez superdotatuak atsegin duten arloa baliabide egokiek jorratzeko aukera dute.



Orereta Ikastolan superdotatuak tratatzeko plangintza egina dute. Ezkerrean, Juan Mari Aizpurua ikastolako psikologo eta orientatzailea.

ikusten, “baina Hezkuntza Departamentuaren egitekoa nire beharrak asetzeko baliabideak jar-tzea izan beharko litzateke”.

Miren ere oso haserre dago Administrazioetik jaso duen erantzunagatik eta oso bakarrik sentitu direla adierazi digu. Berritzeguneak (hezkuntza-ren hobekuntzarako zerbitzu publikoak) alaba helduena superdotatua dela Valladolideko fro-gengatik onartu du, baina lau urte pasa arren oraindik ez dira bere alaba txikiarekin bildu eta Berritzeguneak ez badu talentu berezia diagnos-tikatzen, ez du laguntza jasotzeko aukerarik. Dena den, alaba helduenari izendapen horrek ezertarako ez diola balio kontatu digu amak: “Hasieratik oso bortitz tratatu gintuzten, ea zer espero genuen galdetuz eta alaba gehiegi motiba-tzen genuela esanez. Diagnostikorako adin onena 16 urte zela ere esan ziguten eta psikolo-goak aholkatu bazigun ere, ikasturterik ez aurre-ratzeko agindu zigun Berritzaguneak, estresa sortuko ziolako. Ikasturtea errepikatzen dutenek ez al dute stres hori sufritzen? Beraien azken erantzuna gogorra izan zen: ‘Oso ondo egiten duzue, jarraitu haurra motibatzen, irakasleak inplikatzan eta psikologora eramaten’”. Baina horrek guztiak gastu handia dakarrela eta ez dutela inongo bekarik jaso kexatu da Miren. Argi du Administrazioa gai honetan ez dagoela pres-tatuta eta horregatik aurkeztzen zaizkion kasu guztiak ahal badu atzera botatzen dituela.

Hala, gehienetan ikastetxearen eskuetan gera-tzen da gaiari aurre egitea. Batzuek, Errenteriako (Gipuzkoa) Orereta Ikastolak kasu, oso plangin-tza garatua daukate, emandako kasu batzuenagatik horri heldu diotelako. Detektatzeko progra-mak dituzte eta 5 eta 8 urterekin adimen-kozientea neurtzeko testak egiten dizkiete. Koziente altuko haurrei beren burua uler-tzen laguntzen diete eta dituz-ten galderak eta beharrak eran-tzuten saiatzen dira, liburu eta material gehigarria eskainiz. Ikastolako orientatzaile den Aizpuruaren hitze-tan, “garrantzitsuena haurrak irakaslearen lagun-tza izango duela jakitea da: badaki egiten eta sor-

Pertsona egiten gaituena

Eneko Subiza adimen urriko jendearekin lanean boluntario hasi zen Iruñean eta Madrilen autismoari buruzko ikastaroak egin ditu. “Mundu gogorra da, baina hor ikasi dut inteligentzia erlatibizatzen eta benetan duen balioa ematen: adimenak ez gaitu pertsona egiten; ez gehiago, ez gutxiago”.

tzen duena entzuteko eta jasotzeko prest egongo dela irakaslea eta horrela ez du bere burua arra-rotzat hartuko”. Ikasturte bat aurreratzea plan-teatu dutela dio eta ikasleari emozionalki eragiten ez badio egokitzapen programa batekin egin dai-tekeela, baina horretarako Administrazioak bai-mena eman behar du eta oraingoz ez da halako-rik gertatu. Bestalde, gainontzeko ikasleei ez zaie esaten haurra superdotatua denik, baina berezi-tzat jotzen dutela ikusiz gero, dituen gaitasunak azaltzen zaizkie eta pertsona normala dela adie-razten zaie. Superdotatuen gurasoekin ere biltzen dira, iritziak, aholkuak eta materiala emateko, eta beste gurasoekin elkartzen dituzte, informazioa elkartrukatzeko oso baliagarria izaten baita.

Gurasoen izua

Hain zuzen, gurasoen papera funtsezkoa da hau-rraren heziketan. Mirenek kontatu digu senarra eta bera ezin sinetsita bueltatu zirela psikologoak berria eman zienean eta hasieran izututa zeudela. Ordutik, ahal duten neurrian alaben zalantzak erantzun dituzte, “eta ez dakigunean liburuan edo interneten bilatzen dugu erantzuna”. Doku-mentalak ikusiz, gizakiaren jatorriari buruzko galderak badituzte autoa hartu eta Atapuercara eramanez edota eskatzen dituzten eskolaz kan-poko ikastaroak eskainiz hezi dituzte, “denetik probatu nahi dutelako eta hala ikastetxean ez dituzten esperientziak kanpoan jasotzen dituzte-lako”. Gakoa motibazioa eta gurasoen pazientzia dela azaldu digu. Zailena? Umeak sufritzen ikus-tea, eta onena, alabekin duten harremana: “Gura-

so eta seme-alaben arteko beste harreman mota bat da: polita da liburutegira elkarrekin joa-tea gauzak ezagutzera, beti dago zer edo zer galdetzeko eta askotan, 14 urteko nire alabak gomendatutako liburuak ira-kurtzen ditut. Horrelako harre-mana izatea zortea da”. Zorte hori Administrazioak ulertzea gustatuko litzaioke, kontuan

hartu ez den talentu intelektual bereziko haur bakoitzagatik, agian gizarteak aukera garrantzi-tsua galdu duelako. ■

Hezkuntza sistemak ez du superdotatuak antzemateko protokolorik, horientzako metodologia bateraturik edo gaia lantzeko materialik ezta baliabiderik ere eta ikasturtea aurreratzea ia pentsaezina da